



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

55 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzkoa. Akats zuzenketa (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Nafarroan etxebizitzarako laguntza neurriak arautzen dituen irailaren 28ko 287/1998 Foru Dekretuko 20.c), 23.c) eta 148. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena. Foru dekretu hori 621/1999 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ebroko Konfederazio Hidrografikoak sustatutako “Pirinioko Itsasorako garapen estrategia” izenekoan esku har dezan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea alda dezan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio telefono-deiak hartzeko zerbitzua Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langileei itzul dakiela. Ekonomia eta Ogasun Batzordeak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hainbat neurri har ditzan Bardeako tiro poligonoaren eraginpeko eremua eta Balkanetara joandako pertsonak direla-eta. Ogasun Batzordeak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontseilariek Parlamentuan agerraldia egin dezaten batzar sektorialak egin baino lehen. Foru Araubide Batzordeak bazter utzia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foruzaingoaren antolaketa eta eginkizunei buruzko planaren betetze maila azter dezan. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsia (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzkoa

AKATS ZUZENKETA

Foru lege honetan akats batzuk antzeman dira. Lege hori 2001eko martxoaren 29ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Behar den akats zuzenketaren bitartez, foru lege hori zuzendu dugu.

– 2. orrialdean, hitzaurrean, bigarren zutabean, lehenengo lerrokadan, 9. lerroan, “Foru lege proiektu honek” dioenean, ondokoa esan behar du: “Foru lege honek”.

– 3. orrialdean, hitzaurrean, bigarren zutabean, bigarren lerrokadaren hasieran, “Foru lege proiektu honen arabera” dioenean, ondokoa esan behar du: “Foru Lege honen arabera”.

– 3. orrialdean, hitzaurrean, bigarren zutabean, bosgarren lerrokadaren hasieran, “Foru lege proiektu honen arabera” dioenean, ondokoa esan behar du: “Foru lege honen arabera”.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroan etxebizitzarako laguntza neurriak arautzen dituen irailaren 28ko 287/1998 Foru Dekretuko 20.c), 23.c) eta 148. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena. Foru dekretu hori 621/1999 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSI - TAKO IRIZPENA

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak ondoko Foru Lege proposamenari buruzko irizpena onetsi du: "Nafarroan etxebizitzarako laguntza neurriak arautzen dituen irailaren 28ko 287/1998 Foru Dekretuko 20.c), 23.c) eta 148. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena. Foru dekretu hori 621/1999 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen".

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proiektu hori, 2000ko irailaren 13ko 70. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz ez da zuzenketarik mantendu ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA
Foru Lege proposamena,
babes ofizialeko etxebizitzaren
borondatezko deskalifikaziorako
epeak arautzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuak 1999ko abenduan onetsi zuen 621/1999 Foru Dekretua. Haren bidez, aldatu egin zituen babes ofizialeko etxebizitzaren arloko araudiaren zenbait alderdi. Halatan, luzatu egin zen borondatezko deskalifikazioa eskatzeko gorde beharreko epea, eta horrek eragin handia izan du gizartean, eta kasu askotan nahi gabeko ondorioak ere bai; etxebizitzaren prezio garestiak

eta babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza murriztak, berriz, areagotu egin dituzte ondorio horiek.

Horrela, bada, borondatezko deskalifikazioa eskatzeko epea luzatu izanaren eta 2000n zehar babes ofizialeko etxebizitza berrien eskaintza jaitsi izanaren ondorioz, famili unitate askorentzat ezinezkoa da beraien etxebizitza egokitzea familia horien beharrezanetara.

Nahi gabeko ondorioak ekiditeko, eta kontuan izanik helburua babes ofizialeko etxebizitzek araubide horri atxikiak jarraitzea dela, neurriak hartu behar dira, baina beste aukerarik ez dutenei ezin zaie galarazi etxebizitza deskalifikatzea merkatu librean beste bat erosteko, baldin eta etxebizitza erosi zutenean zeuden baldintzei lotzen bazaizkie.

Badirudi, beraz, neurriak hartu behar direla hala egin nahi dutenek babes ofizialeko etxebizitza berri bat eros ahal izan dezaten, nahiz eta halako beste baten jabe izan, baldin eta haren tamaina famili unitatearentzako egokia ez bada, baina horretarako nahitaezkoa izanen da etxebizitza hori beste pertsona bati baremoaren sistemaren bidez adjudikatu ahal izateko uztea.

Neurri hori soilik izanen da eragingarria baldin eta babes ofizialeko etxebizitza berrien eskaintza benetakoa eta nahikoa bada, eta hori ez da gertatuko bizpahiru urte iragan arte, eta, hortaz, bestelako neurriren bat ere hartu behar da, alegia, beraien etxebizitza deskalifika dezaten utzi behar zaie 621/1999 Foru Dekretuak indarra hartu baino lehen etxebizitza erosi zutenei, orduan ezarritako baldintza beretan deskalifikatu ere; horrela, ez da zapuztuko familia bakoitzak bere bizitzaz eginiko plangintza.

Artikulu bakarra. Babes ofizialeko etxebizitza baten jabeek, behin-behineko kalifikazioa 1999ko abenduaren 30a baino lehenago jasoa badu, horren borondatezko deskalifikazioa eskatu ahal-ko dute 287/1998 Foru Dekretuaren 147. artikuluko c) idatz-zatian ezarritakoari –edo hura ordezteko xedapenei– jarraituz behin betiko kalifikazioa eman zenetik bost urte iraganik; horretarako bete beharreko tramitea aipatutako foru dekretuaren 148. artikuluko bigarren idatz-zatian ezarririk dagoena izanen da, ondoko kasuetan:

a) Ezkontideen arteko sozietaterako erosi eta sozietate hori bereizi denean, ezkontideak bereizi direlako, ezkontza deuseza izan zelako edo dibortziatu direlako; halaber, bikote egonkorren kasuan, baldin eta bi aldeek etxebizitza erosteko ekarpenak egin badituzte eta ondasunak likidatzeko prozesuan badaude, harreman afektiboa hautsi delako. Betiere, hori guztia behar den moduan kreditatu beharko da.

b) Beren lan egoerarengatik, egoitzarengatik edo Etxebizitza Departamentuak aintzat harturiko arrazoi garrantzitsu batengatik etxebizitza aldatu behar dutenak. Betiere, hori guztia behar den moduan kreditatu beharko da.

c) Egun bizi direnentzat gela kopuru desegokia duen etxebizitza batean bizi direnean. Gela kopurua lehen salmenta egin zenekoa izanen da, eta desegokitzen joko da baldin eta sukalde, bainugelak eta egongela-jangelaz gain, familiako hiru kide edo gehiagorentzako gela bat, lau kide edo gehiagorentzako bi gela eta sei kide edo gehiagoren-

tzako hiru gela baditu etxebizitza horrek. Edozein kasutan ere, gela kopurua desegokitzen joko da baldin eta familia unitateko aurreko ahaideek eta ondorengoek gela berean bizi behar badute.

d) Babes ofizialeko etxebizitza baten jabeek ohiko etxebizitza izateko asmoarekin 1999ko abenduaren 30a baino lehen beste etxebizitza bat erosi dutenean. Beste etxebizitza bat erosi dela ulertuko da baldin eta kontratu pribatu bat sinatu dela eta etxebizitza hori erosteko lehen ordainketa egin dela kreditatzen bada.

Xedapen gehigarriak

Lehena.- Nafarroako Gobernuak hilabeteko epean garatuko du babes ofizialeko etxebizitzaren arloko ikuskapen erregelamendua. Haren bidez, etxebizitzak behin betikoz kalifikatu ondoko hiru, bost eta bederatzigarren urteetan ikuskapenak egin beharra ezarriko da.

Bigarrena.- Nafarroako Gobernuak erregelamendu bat emanen du, lagatako etxebizitzak eskaini, balioetsi eta berriz esleitzeko prozedura ezartzeko eta babes ofizialeko etxebizitzaren jabeek, beraien etxebizitza beste bat, handiagoa edo txikiagoa, eskuratzearen truke eskaintzen dutenean, izanen dituzten eskubideak, betebeharrak, onurak eta hobariak garatzeko.

Azken xedapena

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra foru lege honek.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ebroko Konfederazio Hidrografikoak sustatutako “Pirinioko Itsasorako garapen estrategia” izenekoan esku har dezan

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak, 2001eko maiatzaren 10ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ebroko Konfederazio Hidrografikoak sustatutako “Pirinioko Itsasorako garapen estrategia” izenekoan esku har dezan”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ebroko Konfederazio Hidrografikoak sustatutako “Pirinioko Itsasorako garapen estrategia” izenekoan esku har dezan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aktiboki esku har dezan Ebroko Konfederazio Hidrografikoak sustatutako “Pirinioko Itsasorako garapen estrategia” izenekoaren prestaketan, zeinean Aragoiko Gobernuak ere parte hartzen baitu. Esako urtegiaren handitzeak kaltetutako herriak ez ezik, planak kontuan izanen ditu, baita ere, handitzearen eraginpeko eremuan egonik zuzeneko onura izan dezaketen herriak. Plana aurrera eramateko, proiektuarekin zerikusia duten administrazio guztiek eginen dituzte ekarpen ekonomikoak; horretan ikusiko da horien esku hartzea.

Garapen plan horrek hurrengo hobekuntzak jaso beharko ditu: errepide sarea, bai eta kultur ondarea, eskaintza turistikoa eta oinarritzko azpiegiturak ere; halaber, handitutako urtegiaren uren jolas- eta kirol-erabilera ere jasoko du. Hori guztia eginen da ukitutako udalei entzunda eta horien parte-hartzearekin.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea alda dezan

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak, 2001eko maiatzaren 10ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea alda dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea alda dezan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legearen aldaketa bat aurkez dezan, ehizatu ahal diren basa faunaren espezieek eragindako kalteak direla-eta ehiztariek ordaindu beharreko kalteordainak Foru Komunitateko Administrazioak osorik ordaintzeko. Ehiza-espezieek nekazaritzari eragindako kalteak horretatik kanpo geldituko dira.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du basa faunak eragindako trafiko-istripuak gertatzen diren tokiei buruzko azterlan bati ekin diezaion hiru hilabeteko epean, eta ehiza-faunarentzat nahiz ehizakoa ez denarentzat igarobide bereziak egiteko aukera gogoan har dezan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio telefono-deiak hartzeko zerbitzua Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langileei itzul dakiela

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak, 2001eko maiatzaren 15ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio telefono-deiak hartzeko zerbitzua Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langileei itzul dakiela".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio telefono-deiak hartzeko zerbitzua Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langileei itzul dakiela

Nafarroako Parlamentuak eskatzen du tributuaren inguruko telefono deiak hartzeko zerbitzua Administrazioari atxikitako langileek bete dezate-la, lehen bezala.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hainbat neurri har ditzan Bardeako tiro poligonoaren eraginpeko eremua eta Balkanetara joandako pertsonak direla-eta

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2001eko maiatzaren 8an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hainbat neurri har ditzan Bardeako tiro poligonoaren eraginpeko eremua eta Balkanetara joandako pertsonak direla-eta".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hainbat neurri har ditzan Bardeako tiro poligonoaren eraginpeko eremua eta Balkanetara joandako pertsonak direla-eta

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan jakiteko minbiziak zer eragin izan duen Bardeako

tiro poligonoaren eraginpeko eremuan –50 kilometroko radio batean–, herri horiek Bardeako gozamena izan ala ez.

Azterlana egiteko lankidetzaz hitzarmena egingen da Osasun Publikoaren Institutuarekin eta NUPeko estatistikako ikerketa taldearekin –eremu txikiak geoestatistika eta estimazioa lantzen ditu–, eta horretarako, besteak beste, tumoreei eta gaixotasun hematologikoei buruzko erregistroko 1993ko urtariletik 2001eko apirilera bitarteko datuak erabiliko dira.

Azterlan hori Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeari helaraziko zaio, eta ateratako ondorioak jendaurrean jakinaraziko dira.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak behar diren baliabideak jar ditzan Balkanetan egon diren soldadu nafarrei eta gobernuz kanpoko erakundeetako laguntzaileei arreta integrala eskaintzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du entrenamendu militarrik egiteko eremuak eta inguruak garbitu eta deskontaminatzeko sistema bat ezar dezan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontseilariek Parlamentuan agerraldia egin dezaten batzar sektorialak egin baino lehen

FORU ARAUBIDE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontseilariek Parlamentuan agerraldia egin dezaten batzar sektorialak egin baino lehen".

Nafarroako Parlamentuko Foru Araubide Batzordeak, 2001eko maiatzaren 9an eginiko bile-

ran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko otsailaren 12ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foruzaingoaren antolaketa eta eginkizunei buruzko planaren betetze maila azter dezan

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 2001eko maiatzaren 16an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foruzaingoaren antolaketa eta eginkizunei buruzko planaren betetze maila azter dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foruzaingoaren antolaketa eta eginkizunei buruzko planaren betetze maila azter dezan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foruzaingoaren antolaketa eta eginkizunei buruzko planaren betetze-maila azter dezan, plan horrek ezarri zituen eta gaur egun bete gabe dauden neurriak urtebeteko epean exekutatzeko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtebeteko epean Foruzaingolari buruzko plan zuzendari berri bat egin dezan Nafarroako Foruzaingoa garatu eta bere eskumenak eraginkorki erabiltzen dituela bermatzeko.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 ». Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 ».	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--